

ETXEKO SAGUAK

Testua: XOSÉ MANUEL GONZÁLEZ 'OLI'

Irudiak: NATALIA COLOMBO

Itzulpena: XABIER OLASO

Kartoi gogorrean egina. 20 x 20 cm. 40 orrialde. 12 €.

Etxeko saguak (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-881-7. Kalandraka-Pamiela.

Ratones de casa (gaztelerez)

ISBN 978-84-8464-929-8. Libros para soñar.

Os ratos da casa (galizieraz)

ISBN 978-84-8464-928-1. Demademora.

Zerua,

Mendia

jakin nahi duzu egia,

konkordun berdea,

lurrera iritsi da

hari fin-fin batez

altzoan mendia.


irun du bidea...

Menditik irten eta etxe batera iritsi den karraskari familia xalo baten gorabeherak kontatzen dituen albuma da *Etxeko Saguak* hau, eta lehen irakurleei zuzenduta dago. Ostatu bila ari ote dira? Janari bila, agian? Betiere bidea da garrantzitsuagoa helmuga baino.

Istoriaren korapiloan parte hartzen duten pertsonajeak eta gainontzeko elementuak kateatuz, eta errima erabiliz, istorioa kontatzeko modu ezberdinak erabiltzen dituen bidaian gidari dugu "Oli", eta bidaia horretan gure ahozko tradizioko zein gertuko beste kultura batzuetako egitura narratiboak erabiltzen ditu.

Umorearen eta poesiaren aireak uztartzen direlarik, arratsalde partetik egunsentira doan kontakizun xeble baten partaideak gara. Sagu ausartei ez zaie behin ere ustekabekorik faltako, "hankak" bete lan dituztela, bete-bete harrapatzen dituen animalia baten ustekabea, konparazio baterako.

Natalia Colonboren irudiak koloreen aniztasunagatik dira batik bat nabarmenak; orobat, argizariak eta koloretako lapitzak erabili eta etxeko toki asko ageri direlako, berorietan irakurleek egunerokotasunaren ezaugarri bitxiak aurkituko dituzte.



■ **Gala:** Sagu batzuk etxe barruan sartu dira tripa-

festa galanta egiteko helburuz.

■ **Adina:** Haur Hezkuntza.

■ **Nabarmenezkoak:** Testu errimatuak, koplak, pertsonaje eta elementu kateatuak; irudi alai eta koloretsuak; "Once damas atrevidas", "El pirata pata de lata" (Kalandraka) eta "Arturo" (Faktoria K) liburuen egilearena. "Hurbil" (Album ilustratuaren I Nazioarteko Compostela Saria, Kalandraka-Pamiela) eta "Nidos" (Kalandraka) egilearena.

Xosé Manuel González 'Oli'

(Cangas, 1960)

Lehen Hezkuntzako irakaslea, itzultzailea, idazlea eta, orobat, Haur eta Gazte literaturan espezialista. KALANDRAKako Sieteleguas bildumako zuzendarikidea ere bada, eta bertan "Once damas atrevidas", "El pirata de lata" eta "Arturo" (Faktoria K) liburuak eman ditu argitara. Halaber, Revista Galega de Educación aldizkariko haur literaturako orrialdeen arduraduna izan da.

<http://www.librosdeoli.gal>

Natalia Colombo

(Buenos Aires, 1971)

Ilustratzailea eta diseinatzaile grafikoa. Buenos Airesko Arkitektura, Diseinu eta Hirigintza Fakultatean ikasi zuen, eta hiri hartan bizi da. Testuliburuak ilustratu eta Espainia, Frantzia, Mexiko, Estatu Batuak eta Argentinako argitaletxeetan haurrentzako albumak argitaratu ditu. Orobat, bakarkako zein hainbateko erakusketetan parte hartu izan du. Santiagoko Udaletxeko Hezkuntza Sailak eta KALANDRAKAK plazaratzen duten I Nazioarteko Compostela Saria irabazi zuen "Hurbil" izeneko bere estreinako lanari esker.

<http://www.nataliacolombo.blogspot.com>

www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.  Pamiela.com
etxea